

# DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 299. zenbakia. 2021eko apirila



**Gotzon Odiaga,  
zaldi gainean trebatzen**

INFORMAZIO SAIO  
PRESENTZIALAK

**MAIATZAK 12 eta 29**

GOI ETA ERDI MAILAK

- DISEINUA
- PRODUKZIOA
- MEKATRONIKA/MANTENTZEA



Azkue auzoa, 1 Elgoibar (Gipuzkoa) • zikloak@imh.eus • 943-74 82 65



aurrez-aurreko  
**ATE IREKIAK**

**MAIATZAK 11**

GOI MAILAKO ZIKLOAK 17:30  
ERDI MAILAKO ZIKLOAK 18:30

info gehiago, gure  
webgune eta sare  
sozialetan!



943 20 32 44

eibar@armeriaeskola.eus  
www.armeriaeskola.eus

"Mende bat biharrian"



**NAZIOARTEKOTZA  
AUKERAK**  
Europa/Mundurako bekak  
Zikloak ingelesez



**METODOLOGIA  
BERRITZAILEAK**  
Erroketan oinarritutako  
talde lana



**ESKAINITZA ZABALA**  
Erdi eta goi mailako zikloak,  
espezializazioak



**GERTUKO  
HARREMANA eta  
ORIENTAZIO  
PROFESIONALA**



**LAN AUKERA  
ZABALA**  
Enpresa harreman estua



**LAN POLTSA**  
Langile teknikoaren beharra

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amalia Arginzoniz,  
Estibalitz González,  
Asier Ibaibarraiga  
Jon Saez,  
Libe Solozabal,  
Dorleta Vidal  
eta Irati Yarza.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Asier Ibaibarraiga.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Garazi Mugarza,  
Valentín Mugarza  
eta San Lorenzo Eskola.

**ARGAZKIAK:**

Begoña Aginaga,  
Kepa Bárcenas,  
Estibalitz González,  
Iñaki Moreno,  
Valentín Mugarza,  
San Lorenzo Eskola  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ayoub Hdidou  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Gaia: saski-naski

## Baserriko alabak

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Baserriko alabak gerade,  
baina somos muy listas,  
euskeraz nahi erderaz  
¡qué bien hablamos alkarrekin!  
Miren ustedes  
qué garbo y salero,  
dantzan gaiñera  
iñobe ezin ondo!



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4 Kepa Bárcenas (Irlanda)	ERMUAN ZER?..... 16-17 Abeletxe Egoitzako gatazka
ELKARRIZKETA .....5-7 Jon Moma abeslaria	IRITZIA ..... 18 Errua (Garazi Mugarza)
MALLABIAN ZER? .....8-9 Gotzon Odiaga kirolaria	ESKOLEN TXOKOA .....19 San Lorenzo eskolako berriak
ERREPORTAJEA..... 10-11 Jasone Salaberria hizkuntzalaria	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN ..... 12 XVIII. Laburbira Ermuan	ZORION-AGURRAK .....21 Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER? ..... 14 Segunda Aranburu parteria	MAIATZEKO AGENDA....22
ZAHARRAK BERRI..... 15 Begoña Aginaga	

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## Kepa Bárcenas

32 urte daramatza Kepa Bárcenasek Ermutik kanpo. 18 urterekin Gasteizera joan zen Elikagaien Teknologia ikasketak burutzera, eta 11 urte eman zituen bertan. Gero, 5 urte Texasen eta 12 Chicagon. 2019ko irailetik Dublinen (Irlanda) bizi da, eta PepsiCo enpresan egiten du lan.

- *Oso gazte joan zinen etxetik...*

Bai, beti izan dut bidaia-tzeko eta esploratzeko grina. Nire tío Javik petrolio-ontzi batean egiten zuen lana eta, itsasotik bueltatzen zenean, haren istorioek ahozabalik lagatzen ninduten. Agian hortik datorkit...

- *Zer moduz moldatu zinen AEBetan?*

Oso gustura egon nintzen. Dallas-Fort Worthen (Texas) eman nituen lehen urteak, eta nire bizitzako udarik berroenak jasan nituen. Lana dela-eta, iparraldera joan nintzen gero, Chicagora: negurik hotzenak bertan! Lagun handiak egin nituen, eta esango nuke nire bihotzak Chicagon jarraitzen duela.

- *2019ko irailean Dublinera salto...*

Bai. Gure saila lekuz aldatu zen eta, aukera eman zidatenean, ez nuen asko

pentsatu. Bizilekua behin baino gehiagotan aldatu dugunok arin ohitzen gara leku berrietara. Gainera, irlandarrek familiarekin eta lagunekin duten gertutasunak Euskal Herria ekartzen dit gogora.

- *Zerk harritu zaitu gehien?*

Batetik, jendearen arteko harreman horrek; bestetik, oso herrialde garestia dela. Alokairuak AEBetan baino karuagoak dira, esaterako.

- *Gustuko duzu bertako janaria?*

Asko! Hiri kosmopolita da, eta denetik dago. Dena den janari tipikoa patata da, hainbat modutara kozinatuta.


- *Hizkuntzarekin arazorik ez...*

Ez, gogorragoa egin zitzaidan AEBetako kutsu guztiei tamaina hartzea.

- *Nolakoa da zure egun arrunt bat?*



Dublin,  
Irlanda



Kepa Bárcenas eta  
Blake txakurra  
Ross Castleren aurrean.

Etxetik 20 minutura daukat lana, eta Dublin zeharkatzen duen Liffey erreka ondotik egin behar dut bidea. Bide hori asko gustatzen zait, erlaxatu eta pilak kargatzen dizkit. 9:00etatik 18:00etara lan egin, eta gero buelta bat eman, gimnasioa, zinera edo pub batera joaten naiz.

- *Zer botatzen duzu faltan?*

Familia, lagunak eta bereziki nire iloba Ane. Oso arin hazten ari da, eta pena ematen dit gehiagotan ez ikusteak.

- *Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?*

Gabonetan. Etxetik joan nintzenetik ez dut sekula hutsik egin.

- *Uste duzu Ermura bizitzera bueltatuko zarela?*

Ez dut uste. Herria eta kaleak ezagutzen ditudan arren, jende gehienarekin harremana galdu dut. Bero-tasunaren eta hondartzaren beharra daukat orain, eta ez nioke ezetz esango Espainiako hegoaldeari, esaterako.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AMAIA  
HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**AIZ**

**AIZ  
Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



Arg.: Iñaki Moreno.

Jon Moma, abeslaria:

**“10 urte barru, atzera begiratu, eta lan honetaz harro sentitzea da nire nahia”**

Hara eta hona igaro du bizitza erdia Jon Andoni Moreno ermuarrak, eta musika izan du beti bidelagun. Musikologiako eta tronpetako ikasketak burutu eta, hainbat proiektutan aritu eta gero, gogotsu dago berak sortutako abestiei tartea egiteko. Horretarako, zortzi kantuz osatutako bilduma grabatu du Bartzelonan, baina berau kaleratu ahal izateko finantzaketa kolektiboa abiatuko du laster. Bitartean YouTube-n eta Spotifyn entzun daitezke bere doinuetako batzuk, eta maiatzaren 22an zuzenean joko du Ermuan, Vertigo Rock jaialdiaren barruan.

e|karrizketa

- *Nola definituko zenuke zure diskoa, Universos?*

Zortzi abestiz osatutako disko konzeptuala da. Naturaren elementu bakoitza bi abestirekin dago lotuta, eta nola edo hala Urkiolarekin dute zerikusia, nik neuk ere lotura berezia baitaukat Urkiolarekin. Bertako elizan urtarok irudikatzen duen murala dago, ziklo bat irudikatzen duena, eta hortik abiatu naiz.

- *Zergatik lotura hori Urkiolarekin?*

Txikitan gurasoekin joaten nintzen, eta gaur egun haiek bertan bizi dira. Leku lasaia da, barea, naturaz inguratuta, mitologiak nahasia... Magikoa da.

- *Bakarka aritzen zara, kantautore bezala?*

Bai, baina diskoa grabatzeko taldea osatu dut: baxua, bateria eta gitarra moldaketa batzuk. Dena den, ez naiz oso eroso sentitzen kantautore etiketarekin, nire musika eta ohiko bakarlariek jotzen dutena oso ezberdinak direlako. Nireak moldaketa asko ditu, eta gitarrak gain, tronpeta sartu dut abesti guztietan, neure ukitu berezia emateko.

- *Noiz izango duzu diskoa eskuan?*

Ekainaren bukaeran edo uztailaren hasieran banatzeko prest egongo da.

- *Nola finantzatuko duzu?*

Momentu honetan bideo bat grabatzen ari naiz, eta horren ostean crowdfunding edo finantzaketa kolektiboa jarriko dut martxan. Maiatzaren 1etik 40ra egongo da zabalik (hau da, ekainaren 10era arte), eta Verkami plataforma erabiliko dut. Finantzaketa kolektiboari esker, nire proiektua babestu nahi dutenek aldeztetik erosi ahal izango dute diskoa, eta babes hori eskertzeko opari edo produktu bereziren bat jasoko dute. Nire sare sozialen bitartez (jon.moma) eta



Verkamiren orrian emango dut kanpaina honen berri datozen egunotan.

- *Garestia da diskoa kaleratzea?*

Duela urte batzuk baino baliabide gehiago eta erraztasun handiagoak daude, eta horri esker prozesua merkatu egin da. Baina ez da merkea. Bestalde, plataforma asko daude egiten duzun musika eskuragarri jartzeko, eta horrek lehia areagotu du, baliabide horiek musikari guztion eskura dardelako.

- *Ohikoa da oraindik ere disko fisikoak kaleratzea?*

Nahiko ideia erromantikoa da, egia esan, gaur egun musikari gehienek formatu digitalean kaleratzen dituztelako euren lanak. Zerbait berezia egin nahi nuen, eta nire diskoak lau lamina eramango ditu, bakoitza naturaren elementu batekin lotuta. Haien atzeko aldean abestien letrak eskuz idatzita egongo dira.

- *Zenbat denbora eman duzu abestihorietan sortzen?*

Gaztetatik gustatu izan zait idaztea, eta kantuak sortu eta abestea. Kontua da tronpeta jotzen nuela, eta ezinezkoa da gauza biak batera egitea. Gainera niri rocka gustatzen zait, eta tronpetak ez du rockarekin bat egiten.

Horregatik, duela urte batzuk, gitarra jotzen ikasi nuen. 16-17 urterekin nire lehen abestiak idatzi nituen, baina iruditzen zitzaidan ez zirela oso onak, eta gorde nituen. Urteak aurrera joan ahala, ausartzen hasi nintzen lagunentzako etxeetan edo jai txikietan abesti horiek kantatzen, eta konturatu nintzen jendeari gustatzen zitzaikeela. Konfiantza hartzen joan nintzen, eta duela urte pare bat erabaki nuen neure proiektua aurrera ateratzea.

- *Zer esaten dizute ingurukoek?*

Polita da ikustea ingurukoek zure musika gustatzen zaiela. Oro har harrituta geratu dira, profesionalgia iruditu zaielako. Askok baretu naizela esaten didate.

- *Zein musika entzuten duzu?*

Galdera zaila da, espektro zabala baitu! Gaur erromantizismoari buruz hitz egin behar dut eskolan: Wagner, Schopenhauer..., eta hori entzuten ibili naiz. Gaztetan rocka gustatzen zitzaidan, haren jarreratik batez ere. Eta gaur egun kantautore asko eta folka entzuten dut.

- *Zure musika Vertigo Rockerako modukoa da?*

Aurtengo edizio berezia izango da, "Kultura segurua da" izenburupean burutuko baita. Light session bat egongo da larunbat eguerdian, eta bertan joko dut. Ermuan jotzea oso

**"Gaur egun nahiko erromantikoa da disko bat argitaratzea"**



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**OSASUNA · ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

 Egokitutako burua garbitzeko konketa

**943 17 28 09 · Goienkale 12**

2021eko apirila

oso berezia izango da niretzat.

**- Zure lehengo kontzertua izango da?**

Ez. Talde ugaritan jo dut, askotan, baina bizpahiru proiektu potolo, polit eta bereziak izan ditut. Rocka eta "tronpeta-mariatxi" nahasten zuen Valladolideko Mariachi Guerrilla taldeko kidea izan nintzen, eta Eskilarapekok antolatutako Jardunaldi Zapatista ba-

tzuetan Ermuan jo nuen. Horrez gain, duela 9 urte Lokomotores elektrotxaranga sortu genuen Valladoliden, inguruan nahiko eza-guna dena.

**- Zenbat urte eman dituzu Valladoliden?**

12 urte nituenean, gura-soek erabaki zuten bertara bizitzera joatea. Urte mor-doa egin ditugu bertan, baina duela 8-9 urte gurasoak Urkiolara bizitzera joan zi-



## "Ingurukoak harrিতuta geratu dira, oso lan profesionala iruditu zaie"

ren. Anaia eta biok Valladoliden geratu ginen ikasketak bukatzen, baina Euskal Herrira bueltatu zen bera lehenengo, eta ni neu duela urte eta erdi. Oso argi izan dut beti Euskal Herrira bueltatu nahi nuela.

**- 16 urte inguru egin dituzu kanpoan, eta hala ere euskarari eutsi diozu...**

Bai, eta diskoko bi abesti euskaraz dira. Beti izan dut euskara buruan. Hemen nengoenean Ikastolan ikasi nuen, eta gero urte pare bat La Sallen. Valladolidera heltzean konturatu nintzen gaztelaniaz bizitzen hasi nintzela, eta aitarekin berearekin ere gaztelaniaz hasi nintzen. Hilean behin-edo Ermura bueltatzen nintzen, eta hemengo kuadrillarekin oso harreman estua izan dut beti. Azkenean, EGA titulua atera, irakasleen zerrendan sartu, eta gaur egun irakaslea naiz Donostiako kontserbatorioan. Argi daukat bizitza honetan erabakiak hartu behar direla,

bestela errutinak harrapatu egiten zaitu.

**- Ermura etorri baino lehen atzerrian ere ibilia zara, ezta?**

Bai, Irlandan egon nintzen urtebete, Brasilen urte eta piku, AEBetan duela bi urte... Leku batetik bestera ibili naiz, betiere nire musikako ikasketekin lotutako bidaia eta egonaldietan.

**- Zein da zure helburua musikarekin?**

Alde batetik niretzat egiten dut musika, bestalde nahiko nuke besteek ere baloratzea. Nire abestiak ahalik eta gehien zabaltzea da nire nahia, eta 10 urte barru, atzera begiratu, eta lan honetaz harro sentitu.

**- Erraza da musikaz bizitzea?**

Ez, batere ez. Ez klasikoan ez musika popularrean, eta musikari gehienek beste lan batekin partekatu behar dute. Ni musikaren bidean nago, eta tinko saiatuko naiz.

Dorleta Vidal

**FUB** Mediku psikiatra  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika

**Fernando Urizar Barandiaran**

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
furizar1@yahoo.com

**SPARA** ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU

**ZUK ERABAKI** www.spara.es  
info@spara.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

**ZK**

**ZUZENBIDE KONTUAK**  
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

**CAPRI**  
PIZZERIA  
943 03 33 15

**RIF**

ITURGINTZA KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Gotzon Odiaga, kirolaria:

# “Zaldia oso animalia fidela eta zintzoa da”

11 urte besterik ez ditu. Mallabiko Goitta auzoko Goitta baserrian bizi da guraso, aitita-amonara eta arrebarekin batera. Zaldian ibiltzeko ohitura etxetik datorkio. *Western* deitzen den diziplinan aritu nahiko luke etorkizunean, eta horretarako ari da prestatzen etxeko Bimba zaldiarekin.

- *Zenbat urterekin hasi zinen zaldi artean?*

7 urte izango nituen. Aurretik Berrizen bizi den lehengusina hasi zen, ondoren nire arreba, eta haiek ikusi ta ni neu ere.

- *Ez al dizu beldurrik ematen?*

Ez, zaldia oso animalia fidela eta zintzoa da. Gozo zaindu behar da, eta berehala ikasten du gainera.

- *Western deitzen den diziplina da zuena...*

Hori da. Zaldiaren laguntzaz, behiak edo txahalak gordeleku batera sartu be-

har dira, ahalik eta denbora laburrenean. Ardien antzera, baina kasu horretan txakurraren lana zaldiak egiten du.

- *Zer diote etxekoek?*

Hasieratik animatu naute. Animalia artean bizi izan naiz beti, eta era naturalean hurbildu naiz zaldien mundura.

- *Eta zer esaten dizute lagunek?*

Badakite zaldi munduan ari naizela, eta horretan jarraitzeko animatzen naute.

- *Non dago entrenatzeko aukera?*



lurretan dago horretarako leku aproposa. Nik momentuz, 12 urte izan arte, ez daukat joaterik, baina datorren urtean hasteko prestatzen ari naiz etxeko Bimba zaldiarekin.

- *Astean zehar zenbat ordu egoten zara zaldi gainean?*

Bizpahiru orduko ostertxo ematen dugu inguruko basoetatik. Mugitzen hasi orduko zaldiak nabaritzen du zer datorren, eta pozik joaten gara biok elkarrekin.

- *Baten batek lagundu dizu?*

Gure auzoan Igor Egurrola bizi da. Aspalditik dabil *western* mundu honetan, eta harengandik gomendio asko jaso ditut.

- *Eta lehiaketak non izaten dira?*

Batik bat Gipuzkoan. Zaldibian eta Zizurkilen, adibidez.

- *Zaldiari zer kostatzen zaio gehien ikastea?*

Jendartean lasai egotea eta aginduez gogoratzea. Bimba oso zaldi argia da horretan.

- *Noiz ikaritzen da?*

Trumoiekin batez ere. Tximista eta trumoi hotsak entzundakoan, izutu egiten da estalperako lekuaren bila.

- *Zaldi mundutik aparte, esku pilotan ere ari zara...*

Bai, Markinara joaten naiz eta han nabil. Momentuz oso gustura.

- *Zein pilotari duzu gogokoena?*

Amona amezketarra da jaiotzez, eta bertako Jokin Altuna ezagutzeko aukera izan dut. Bera da nire izar kuttuna.

- *Etorkizunean zaldia ala esku pilota?*

Zaldiarekin ere oso pozik ari naizen arren, pilota.

Asier Ibaibarriaga

## Tasio eta Sabino



HARATEGIA - URDATEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELLETAN  
 BIZKAIKO  
 TXAPELDUNAK  
 PROBLEKURU 3-943170563  
 ERMUA

**OINAK**  
**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44



## BI EKINTZA ANTOLATU DITU MALLABIKO UDALAK MAIATZEKO LEHEN ASTEBURURAKO



Maiatzaren 1ean (larunbata), umeei zuzendutako historiaurreko tailerra burutuko da. Parte-hartzaileek sua nola egingen zen ikasiko dute, historiaurreko bizitza ezagutu, eta lantza jaurtiketara trebatuko dira, besteak beste. Parte hartu nahi duten umeak eta helduak 11:30ean bildu behar dira parkean. Ez da beharrezkoa izango alde zurretik izena ematea. Hurrengo egunean, maiatzaren 2an (igandea), *Urbasa* ikuskizuna eskainiko du Hutsun & Ortzik konpainiak, 12:30ean herriko frontoian. Espektakulu honek txalaparta, malabarismoa eta akrobaziak nahastuko ditu. 150 eserleku egongo dira, eta 12:00etan zabalduko dira ateak, jende-pilaketak ekiditeko.

## BASERRIEN IZENAK KARTELETAN JARRIKO DITU MALLABIKO UDALAK

Aspaldiko asmoa gauzatu ahal izan du Mallabiko Udalak azken asteotan: baserrien eta mendien kokapena markatzeko kartelak jartzea basoetan, bideetan eta bidegurutzetan. Baserriz baserri jabeek galdetu ostean ia kartelik nahi zuten, eta jarri gura zuten kokapen zehatza, enpresa asturiar bat arduratu da izenak egurrean estanpatzeaz.




Egurrezko euskarri horietan, baserriaren izen ofiziala jartzen du eta gezi batek adierazten du aipatutako leku edo etxearen kokapena. Udaleko langileek dihardute erabakitako lekuan kartel bakoitza jartzen eta, oraindik banaka batzuk falta diren arren, gehiengo jarrita dago.

## JUBILETXEAN IKUSGAI EMAKUMEAK ETA BASERRIA LIBURUA

Mallabiko eskola-umeek Martxoak 8aren harira osatutako liburu erraldoia ikusi ahal izango da Jubiletxean oraindik aste-txo batzuetan. Herriko 28 emakume baserriarrei egindako galdetegiaren erantzunak jasotzen dira bertan, bakoitzaren argazki batez lagunduta. Familiak osatu dute eta, egindako bilketa lanari esker, besteak beste gaurko eta aurretiko andreen zereginak eta ardurak irakur daitezke: ortua landu, ortuariak erein, belarra moztu, belar-metak egin, ganaduak gobernatu, horien azpiak egin, behiak jatzu, Ermura, Eibarrera eta Soralezera joan esne partitzen eta ortuariak saltzen, etxeratzean marmitak garbitu, belar txarrak kendu, txerria hil, odolosteak egin, lihoa landu, askan arropak garbitu, ogia egin, gaztaina, intxaurrak, hurrak eta sagarrak batu, txerriei, oiloei eta untziei jaten eman, egurrak ekarri sutarako, arrautzak batu, gazta egin, simaurra zabaldu, porruak atera eta askan garbitu, txakurrari jaten eman, amama zaindu, idien aurrean ittaurren, kortan ganajatekotan eta azpigarritzen, soloan gari-joten, ortuan goldaketan eta artajorran... Ardurak ugari, atsedena urri!



# FEREDU SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

# Jasone Salaberria, ikasteko gogua aldian beti

**Hizkuntzalarixa, irakaslia, ikerlarixa, idazlia, euskalkixetan aditua... bere heriotzaren barri euki dogunian, gertukoengana jo dogu azken 40 urtiak Ipar Euskal Herrixan bizi izan dan ermuar honen gañekuak osatzeko.**

**E**rmuko Ignacio Olañeta, gaur Zubiaurre kalia, jaixo zan 1952ko uztaillaren 18an, aitzitxa eurenak jarritxako Salaberrianeko taillar gañeiko etxian. Casto Salaberria eta Igone Fuldainek izandako 8 seme-alabetatik hirugarrena izango zan bera: neskato alaixa, geldieziña, olgatzeko prest beti. "Etxe aurrian olgatzan genduan, orduan kotxerik bez eta kaleko ume dan-danak ibiltzen giñan alkarrekin: soka-saltuan, pote-poteka, goitxi-beheran, hasi kalia goikaldian eta Komentukurainok, barandilletan txiribueltak eitxen, antxitxiketan beti, gora eta behera... Alkarri harrika eitxera be igual! Sarri bajatzen giñan erre kara eta

udan Drogeten itxurrira, igexiran eitxera... Batzutan, merkaura etortzen ziran baserritxarren astotzaretara igo, alderdi bakoitzian gutako bat jarri eta arre! Jasone ez zan atzian geratzen!", gogora dakar Amaia ahizta nagusixak. Euren lehengusiña Agurtzane Salaberriak be "txintxurrian eta tortolose-tara" ibiltzen zirala gogortzen dau, kalia eta aldran beti.

Jasonek 10 urte zitxuala, famelixia Durangora jua zan bizi izatera. Han Nevers ikastetxe frantsesian ikasi zeban, eta Magisteritza gero. 70eko hamarkada hasieran eta, maistra titulua ondiñok eskuratu barik, Ermuko Anaitasuna Ikastolan ekin zotsan biharrian, Lehen Hez-



Arg.: Egunkaria - Berria.eus

kuntzan hasieran eta txiki-xekin gerora. Haren ikasle izandako askok estima handiz gogoratzen dabe.

## Oi, Ziberual

Eskola-oporretan Iparraldera, Ziberuara juaten hasi zan, hango euskalkixa aztertzeko asmoz; gerora zubera eta nafar-lapurtarraren ahoskera eta akustikaren ikerketan murgilduko zan batez be. Barkoxen ezagututako Jean-Michel Larraskekin Toulousen ezkondu zan, senarra bertako unibertsidarian irakasle zala. Bizitzak gero Baionara eruan zeban bikotia.

Bordele-Montaigne Unibertsidarian doktoretza eskuratu zeban. Bi tesi aurkeztu zitxuan: 1991an, *Prosodia eta silabismoa xiberutar kantu tradizionalen* eta

1998an, *Zuberera barkoxarreko bokalen azterketa akustikoa*. Anuntxi Arana eta bera izan ziran Ipar Euskal Herrixan euskeraz aurkeztutako lehen doktore-tesien egilliak.

Seaskaren, Ipar Euskal Herriko Ikastolen, bultzatzaile izan zan, bertako irakasle be, eta Baionako Bernat Etxepare lizeoan luzeruan euskera eta euskal literatura erakustaille. Aldi berian, euskera ikasteko liburu eta materixalak argitaratu zitxuan: 2009an, Jean Baptiste Coyosekin batera, *Le basque pour les nuls*, 2012an gaztelaniaz berrargitaratua *Euskera para Dummies* izenburupian.

## Ikerlari nekaezia

Hainbat proiektutako parte izatera bultzatu zeban

**“Ziberukuekin zuberotarrez jarduten zeban; mugaz beste aldeko etxekuekin, bizkaieraz”**



Drogeteniituri, 299 zk.

ileapaindegia

## Silvia

peluquería

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474688819336

bere ikerlari senak: Baionako IKER zentruan, euskeran eta euskal testuetan sakontzen; 2005ean antropologo, genetista eta hizkuntzalari desbardiñekin batera ADN mitokondrial eta Y kromosomak aztertzen; 2012an Iparraldeko belaunaldi desberdinen euskaldunen hizkera alderatzen; 2017an Lehen Mundu Gerrako euskal presoen grabaketen transkripziño fonetiko eta ortografiak eitzen...

“Argixa, efizientia, bihargiña...”, hola definitzen dau Agurtzanek. Amaia galdetuta, “laguntzaillia, eskuzabala, lagun eitxaillia, harrotasun bakua... Sekula bez geldik, ikasten eta ikasi guran beti. Lagun batek ‘ikasle eterna’ deitzen zotsan. Etara kontuak: erretirua hartuta be, ondiño bere ikerketa eta biharrokin jarraitzen zeban!”. Hitzaldi, mintegi eta kongresu ugaritan bere iritzia partekatu dau sarritan; elkarlanian gero hainbat ikerlan idatzi eta argitaratutakua da.

Iparraldeko Eusko Ikaskuntzako lehen-dakariorde izan zen Jean-Michel Larrasquet, 2012tik 2018ra, zendu zan arte. Ja-

sone emaztea kide aktiboa izan da azken unera arte, gaixotuta be, bertakuekin lanian jarraituz. 2018an, erakundiarren 100. urteurrenien, antolaketan buru belarri ibilli zan, eta Baionan burutako kongresuan Iparraldeko kideen ordezkari izan zan. Oihana Zamponi-Galé, Eusko Ikaskuntzako komunikazio arduradun dionez, “berari esker euskararen ikusgarritasuna asko emendatu dela Iparraldean”. Oihanan irakasle izan zan lizeoan eta aipatzen doskunez “beti hor izan da gazteen laguntzaile eta bultzatzaile gisa, beti hor aholkuak eman eta pettoak zuzentzeko. Aski zeila da bere karakterea definitzea: pertsona zorrotza zen, baina zentzu onean, erran nahi dut gauzak untsa eta segur egiten zituela eta beti burura eramaten, ez zuen fitsik bukatu gabe uzten. Dударik gabe, feminista handia zen eta gorroto zuen injustizia. Kalipu handiko emaztia, eskuzabala, beti laguntzeko prest... Ez zuen inoiz jendea inkietatu nahi, umiltasun handikoa zen. Etsenpluan hartzen ahal zen emaztia!”.

Euskeraren ekintzaillia eta defendatzaillia izan zan Jasone. Euskeria maitxe zeban eta herri-hizkeren aberastasuna miresten. Ziberukuekin zuberotarez jarduten zeban; mugaz beste aldeko etxekuekin, bizkaieraz. Ermuarra sentidu zan beti eta, juaten zan lekura juaten zala, bere jatorrixa errebindikatuz. “Durangora jua giñanian be, berak Ermukua zala esaten zeban; bertako Ikastolan biharra eitxeran, loturak mantendu zitxuan. Bere esaldixa zan: ni ermuarra naz, Ermukua naz”, diño Amaiak.



Jasone eta Asier anaia alkarri ulia moztu barri, pozarren, aman astindua hartuta zeuala igarri ez arren. Atzian Drogeten etxia, Rantxua. 1958.

Jasone Salaberria Fuldain Baionan zendu zan, apirillaren 8an, hillabete batzuk gaixorik emon ondoren. Bere heriotzan barri laster aillegatu zan jaixoterrira eta, mezu kate luze haretan, herritar baten proposamena: “Inoiz Ermuan lekuren bat (kale, plaza, eraikin...) izendatu beharra bada go, hona hemen emakume ermuar eredugarri batena. Bere izaera, ibilbide eta ekarpenak balioan jarri eta ahanzturan ez geratzeko bide gisa”. Ia ba hola dan!

Estibalitz González



Ermuko Ikastolako ikasleekin, San Inazioko patiuan. 1978.

# arnasa GARA


# EGUNEROKOAN ZER?



**Arnasa Gara** kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen arnaguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerrriak dira **arnaguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.

[www.arnasagara.eus](http://www.arnasagara.eus)  
martxoaren 22tik maiatzaren 14ra  
astero bideo bat eta elkarrizketa bat



## VERTIGO ROCK ETA ELEKTROJAIA BURUTUKO DIRA ERMUAN MAIATZEAN

Maiatzaren 21ean eta 22an Vertigo Rock jaialdia burutuko da Ermuan, "Kultura segurua da" lemapean. 21ean Liher taldeak kontzertua eskainiko du Ermua Antzokian (19:00etan) eta 22an, Alfredo eta Iker Piedrafita aita-seeen eta Jon Moma ermuarraren kontzertuak egingo dira plazan (12:00etan). Arratsaldean, 18:00etan, Rodeo eta Bala taldeen txanda izango da. Bestalde, Elektrojaia maiatzaren 28an burutuko da. Musika elektronikoen jaialdi hau ere egungo egoerara moldatu behar izan dute antolatzaileek, eta aurten parte-hartzaile bakarra izango da: Oscar Mulero DJa. Ermua Antzokian arituko da 19:00etan. Horrez gain, Javier Suescunek artistentzako trebakuntza-hitzaldia eskainiko du, eta Javier Nándezek musika ekoizpenaren inguruko *masterclass* saio bat gidatuko du (doan).

## Maiatzaren 6an burutuko da aurtengo Laburbira

Euskarazko film laburren XVIII. zirkuitua maiatzaren 6an (osteguna) egongo da ikusgai Ermua Antzokian. Euskal Birusa Euskara Elkarteak eta Topaguneak elkarlanean antolatutako emanaldia 19:00etan hasiko da, eta 8 filmez gozatzeko aukera izango dute ikusleek. Bukatutakoan, *Ilunabarrean esan* filmaren zuzendariarekin solasaldi laburra burutuko da. Sarrera doakoa da.



## 8.000 kilo lekale baino gehiago batu ditu Zaporeak proiektuak

Zaporeak proiektuak 8.000 kilo lekale baino gehiago batu ditu Ermuan, Mallabian, Eibarren eta Elgoibarren, hala nola higieneproduktuez osatutako lau palet (fardelak, konpresak...) eta 8.000 €. Horrez gain, apirilaren 17an Ermuan egindako bazkarian 315 tuper saldu ziren. "Oraindik ez dugu kanpaina bukatu, izan ere Tennecoko langileen eta enpresaren beraren ekarpenaren zain gaude", azaldu du proiektuaren arduradun Mireia Alonsok. Alonsok eskertu nahi du norbanako guztien laguntza, baita proiektuak bailaran dituen 5 hornitzaileen babesa ere: Cartonajes Eibar, Fernando Dosantos frutak, Urkotronik, Lumagorri eta Bacalaos Alkorta. Halaber, gogorazazi du jasotako gutzia Lesbosera eramaten dela zuzenean, inolako bitartekaririk gabe.



**Torrealday**  
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

**Plan B**  
Coffee Lounge Gin & Beer

**LIMPIEZAS GARCIA**

**ERABATEKO GARBIKETA  
ETA DESINFEKZIOA**

- \* Jabeen erkidegoak
- \* Bulegoak
- \* Dendak

**1º HILABETEA DOAN\***

- \* Etxebizitzak
- \* Ostalaritza
- \* Elkarte gastronomikoak

**-15% DESKONTUA\***

\*Lehen fakturan aplikatuko diren sustapenak, bezero borrorientzat bakarrik.

**DEITU ORAIN ETA LORTU ZURE AURREKONTUA  
24 ORDU BAINO GUTXIAGOAN !!!**

600 25 02 87  
limpiezascgarcia@yahoo.com

**CITROËN  
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria  
**ANBOTO**  
Burdindegi

Orain  
**KOTXEKO GILTZEN  
KOPIAK** ere  
egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

**Desiak**  
PSIKOLOGIA  
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA

Nahia Rojo Bustinduy  
Psikologoa eta Sexologoa

Hitzorduak: 688 85 18 95

## “Eredu dualak nire profil profesionala garatzeko aukera eman dit”

**Ainhize Antuñano Larruzea (Bilbo, 21 urte)**  
**Industria Antolakuntzako Ingeniaritza**  
**graduako 3. maila ikasten ari da Mondragon**  
**Goi Eskola Politeknikoan.**

- **Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?**

Unibertsitaterako pausua eman aurretik, Bilbon ikasi dut. Hala ere, saskibaloian jokatu dut 8 urteetatik eta horri esker, lagun-ingurune ezberdinetan mugitu izan naiz eta nire gaitasun sozialak garatu ditut. Horrez gain, mendira lagun zein familiarekin irteerak egitea gustatzen zait.

- **Zergatik aukeratu zenuen Industria Antolakuntzako Ingenieritza gradu? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Zientzia-zalea izan naiz txikitatik, nire ikasgai gogokoak matematikak, biologia eta fisika izan dira. Hala ere, hasieratik argi nuen nire etorkizunean pertsonen harremanak eta ekipoko lana sustatzen duen lanpostu bat nahi nuela; horregatik aukeratu nuen Antolakuntzako gradu. Mondragon Unibertsitatea aukeratzeko orduan, talde-lana oinarritzat duen baita ikasitakoa errealitateara eramateko aukera ematen duen unibertsitate baten ikastea erabaki nuen.

- **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Nire gaitasun akademikoak garatzeaz gain, pertsonalak ere landu ditut. Alde batetik, unibertsitatean eskaintzen den ikasleen zein irakasleen arteko harreman hurbilagatik eta, beste alde batetik, ekipoa lan egiteak ekarri dizkidan abantailengatik.

- **Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Modu tradizionalan eskuratzen diren ezagutzak, teorikoki eskuratzen direnak, ingurune errealista eta egungo batean aplikatzen dira, PBL metodologiari esker. Honen bidez, eskuratutako ezagutzak kudeatu eta aplikatu daitezke, talde-lanaren bidez eta adituen laguntzarekin. Horri esker, talde-lana indartzeaz gain, ikasleok seihilekoan eskuratutako ezagutzen benetako aplikazioa ikusten dugu.

- **Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Pertsonekiko hurbiltasuna, bai beste ikaskideekiko garatzen ditugun ekipoko lanengatik eta irakasleekiko, eskaintzen dizkiguten laguntzagatik. Zeozer hobetzeko, Erasmus eskaintzak handiagotuko nituzke; izan ere, nahiz eta atzerrian ikasteko aukera izan, ikasleen artean joan nahi diren artean gu-

txi batzuk bakarrik parte hartzen dute programa honetan.

- **Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, Dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?**

Bigarren urtea da Mondragon Unibertsitateko Errektorretzan egiten dudala lan. Bertan, beste gauza batzuen artean, orientazio-azokak antolatu eta datuen kudeaketa egiteaz gain, Unibertsitateko-prozesuen kudeaketa

eta jarraipena egiten dut aurrerago hauen hobekuntzan jardun ahal izateko.

- **Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**

Nire profil profesionala garatzeko aukera eman dit. Lan-ingurune erreal baten murgildu izan naiz, nire profil profesionalarekin bat datorren lan batzuk garatuz.

- **Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Master bat ikastea gurako nuke. Hala ere, oraindik ez dut aukeratu.



# Segunda Aranburu, parterria

Haurdunaldi edo erditze unerako mediku edo ginekologo eza, ez aspaldi, beste andrazko batzuk betetzen zeben. Umia eitzeke zeuzen amek, inguruko andraren batengana edo herrixan horretara dedikatzen zanangana jotzen zeben. Hau amari laguntziaz eta bihar zeban edozertaz arduratzen zan jaixotze egunian eta hurrenguetan. Horretarako hain justu deitzen zotsien Segunda Aranbururi. Eta bardin juaten zan bateron bat hil ezker: premiña nun, bertan bera.

**D**oulak dira horrek androk. Berbia grekotik dator eta “emakume bati zerbitzen dotsan beste emakume bat” esan nahi dau. Umedun daunari aholkuak emon, zaindu eta partua etortzen danian, lagundu eitzen dotse, une hori samurtze aldera. Bere zeregiñak izena zekala jakin barik horixe eitzen zeban Segundak.

1878ko ekainaren 1ian jaixota, Laureano Aranburu Aguado eta Modesta Ormaetxea Larrañaga ermuarren 8 seme-alabetatik laugarrena izan zen, nagusitzera erdia aillegau bazan be: Segundaz gain, Emilia, Petra eta Alejandro, “Droget”. Ume asko jaixotzen ziran orduan famelixetan eta hil be, holantxek hiltzen ziran.

Ezagutu zebenak karakter haundiko pertsonia zala diñue aho batez, bizitzari gogor eitzen jakin zebana, famelixa aurrera etaraz. Birritxan ezkondu zan: Luis Unamunokin 1902an, eta Eduardo, Eladia eta Roman jaioko ziran; 32 urtekin alargunduta, 1913an Roman Agirre-gomezkortakin ezkondu eta Pablo semea jaixo zan. Honen alaba dan Arratek

ez zeban amama ezagutu, bera txiki zala hil zalako. “Aurrera beti!” da Segundari buruz entzun dabenaren laburpena. Eta premiña zekanantz laguntasuna zeuala beti eurenian. “Laguntzen, beti laguntzen! Daneri!”.

Emagin lanetan ibili zan sasoiari famelixak haundixak ziran, eten bakuak haurdunaldixak eta premiña-premiñazkua bere biharra. Arratek diñoskunetz “ez zeban ezer kobratzen eta gainetik jatekua eruan berak!”. Etxian entzunda dakanez, “umiari jaixotzen laguntziaz gain, etxeko zeregiñak eitzen zitxuan: jatorduak, garbitxasunak, gaiñontzeko umietaz arduratu... Amori pixkat gogortu arte, inguruan ibiltzen zan bera!”.

Gerra ostian, Larrinagako kartzelan euki zeben preso eta sukaldari izan zan bertan. Zirt edo zarteko emakumia, bizitzara laguntzeko ez bakarrik, heriotza osteko bidairako be prestatzen zekixan: bateron bat hil ezker, manejo itzela ei zekan gorpua janzte kontuetan. Eta hilbarri baten etxera juan ezker beti topatzen zeban zer egin, kontsolamentua emotiaz gain.



Erdikokale 10ian, Segundaneko lez ezagututako etxiaren lehelengo pisuan hil zan 1951ko urtarrilaren 17an. Haren jakindura eta laguntzeko gogua Eladia alabak jaso zeban eta, ama hil aurretik be partera lanetan zebilela, horretan jarraitu zeban. Etxian ikusia haxe ikasia!

Estibalitz González

**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**  
**PALACIOS SM**

ENTPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

**660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23**

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak  
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com · joyeriasenen@gmail.com

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60  
E-maila: info@enolimp.es  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

**Horacio Decoración**  
VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

# Begoña Aginaga, bizitza oso bat irakaskuntzari eta euskarari eskainia

**Pasai Donibanen jaioa duela 75 urte. Gaur egun Berrizen bizi da. Ermuko Ikastolan irakasle gisa 32 urte eman ostean jubilatzen. Egun, oraindik borondatezko lanetan dihardu.**

## - Nola iritsi zinen Ermura?

Oso gaztetatik misiolari izateko bokazioa neukan, eta bazen Gasteizen bizi zen lagun bat misioetan ibilia. Hari jarraika, etxetik atera eta bi urte Gasteizen pasa ostean, Markinara joan nintzen, egoitza batean ostalaritza lanak egitera. Hiru urte eman ostean, Ermuko haurtzaindegi batean beharra sortu zen, eta etorri nintzen.

## - Eta ikastolan irakasle izateko pau-soa?

Haurtzaindegian nintzela, ikastolatik deitu zidaten: euskara nekiela, umee-kin banuela esperientzia... Ikasketarik ez nuen, soilik haurtzaindegirako ikas-taro batzuk. Halere, animatu eta han hasi nintzen.

## - Zer oroitzapen dituzu garai haietatik?

Hitz batek laburbiltzen du dena: ilusioa. Lantaldean oso ondo konpontzen ginen, materiala eta taldeak antolatzeko... Materialaren prestakuntzan be-

reziki aipatuko nuke Arantza Totorikarekin izan dudana urteetako harremana.

## - Eta gurasoen laguntza ere izan zenuten...

Ezinbestekoa izan zen gainera! Edozertarako prestutasuna azaltzen zuten: inauterietarako, jaialdiak prestatzeko, ikastolako tabernan lan egiteko...

## - Jubilatzen zinen egun hura nola gogoratzen duzu?

Pena handiz! Oraindik fisikoki jarraitzeko moduan nengoen, nahiz eta haurrek lan asko eskatu. Oso gustura jarraituko nuen.

## - Ume txikiekin tokatu zitzaizun batik bat?

Bai, laupabost urteko umeekin. Zoragarria da tarte horretan ematen duten jautzia! Hori bizitzea izugarria da!

## - Urte horietan guztietan zer eman zizun irakasle lanak?

Ilusioa, poza, formakuntza jarraitua, egunero zerbait ikastea, jende asko ezagutzea... Gauza asko!!

## - Irakaskuntzan zeundela sortu zen Euskal Birusa, eta orduan ere han zinen...

Irakaskuntzak emandako dena, jende-ari eta herriari itzultzeko gogoia sumatu nuen. Ermuan ez zen apenas euskararik entzuten, eta horri aurre egiteko izugarritzko taldea batu ginen, Iñaki Arregi gidari. Hor ziren besteak beste Tomas Trifol, Gaizka Areitioaurtena, "Murtzi", Miren Elejondo, Marines Txurruka, Koldo Aranberria, "Xagu", Esti Gonzalez, Zorion Zamakola, Juanita Ibaibarriaga, Ikerne Arzuaga... A ze ekipoa!



## - Baita San Martin azokan talogile lanetan ere...

San Martin azokan parte hartzeak beti sorrarazi dit izugarritzko poza. Miren Betiondo, Mari Karmen Urkidi, Luisa Egia zena... Adin tarte ezberdineko zenbat jende lanean fin-fin!

## - Caritasen eta elikagaien bankuan ere ari zara...

Gaur egun 48 familiei banatzen dizkiegu elikagaiak hilero Berrizen. Horrez gain, tonbola ere egiten dugu, jendeak borondatez ematen edo egiten dituzten jantziekin. Tamalez, COVID-19a dela-eta, iaz ez genuen egiterik izan, ea aurtun.

## - Zuretzako tarte duzunean...

Irakurtzea gustatzen zait, baina due-la gutxi kataratetako ebakuntza izan nuen eta larri nabil. Horrez gain, asko gustatzen zait irratia eta baita telebistan kirolak ikustea ere: esku pilota eta arrauna batik bat. Altuna eta Zabaleta pilotarien jarraitzaile sutsua naiz.

## - Besterik?

Berrizen oso gustura bizi naiz, baina agur bero bat bidaltzen diet ikasle ohi, guraso eta Ermuan ditudan lagun guztiei.

Asier Ibaibarriaga



**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
PLAN BABESERAKO  
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

# Abeletxe Egoitzako langile talde batek pandemiaren kudeaketa babestu du

Pandemiaren lehen asteetan Abeletxe Egoitzan gertatutakoaren aurrean ez dago jarrera epelik. Horren erakusgarriak dira senideek burutzen dituzten ekintza publikoak, zein egoitzako langileen artean azkenaldian sortutako bi taldeak: alde batetik, zuzendaritzaren kudeaketa babesten dutenak; bestalde, senideen aldarrikapenekin bat datozenak. Ondorengo orriotan talde bakoitzaren arrazoiak jaso dira.

Martxoaren bukaeran, Abeletxeko langile talde batek idatzi bat argitaratu, eta sare sozialen bitartez zein herriko kaleko hormetan zabaldu zuen: “Egia erdiak, gezur txarrenak”. Testu horretan COVID-19aren eraginez hildako egoiliarren senideei elkartasuna adierazten diete eta egoitzako lanpostu ezberdinetako langileek egindako lana goraiatu, besteak beste. Era berean, gogor kritikatzeko dituzte egoitzan egindako lana gutxiesten dabilzanak, hildako kopurua egunetik egunera aldatzen dutenak, beldurtuta zeudelako baja hartu zuten lankideak, eta baita Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzaren eredu, momentu jakin batzuetan hartutako erabakiengatik.

Euren esanetan, egoitzako esparru ezberdinetako 41 langilek sinatu dute testu hura (lantalde osoaren %45), eta haren helburuetako bat da azaltzea nola sentitu ziren langileak pandemiako lehen hilabeteetan: “Oso gogorra izan zen. Lehen 15 egunetan oso ondo aritu ginen, baina hirugarren astean positiboak agertzen hasi ziren

eta denak eztanda egin zuen. Gutako batzuk 7 astez egin genuen lan astelehentik domekara. Positibo izanda ere, lanera joan nahi genuen”, gogoratu dute.

Lehen segundotik babes ekipoak izan zituztela argitu dute: “Agian ez egokienak, baina hasieratik izan genituen maskarak eta bata”. Eta hala ere, oso babesgabe sentitu ziren koronabirusarekiko, eta etengabe aldatzen ziren protokoloekiko: “Askotan zuzendaritzari leporatu zaio protokolo horiek okerrak izan zirela edo berandu heldu zirela, baina zuzendaritzak ez zituen agindu horiek ematen, goitik zetozen”, esan dute. Izan ere, onartzen dute gauzak hobeto egin zitezkeela, baina zuzendaritza eta enpresa bereizten dituzte, eta uste dute zuzendaritzak oso lan ona egin zuela: “Argi daukagu zuzendaritzak egoiliarra lehentzi zuela momentu oro. %100 edo %200 eman zuen. Egun batean langileen %60 etxera bidali zuten kutsatuta: ulergarria denez, ezinezkoa da horrenbeste ordezko egun batetik bestera topatzea”, gogoratu dute.



## Senideekin desadostasunak

Era berean, pandemia gorrrian, langileen eta egoiliarren senideen arteko harremana ez zen erraza izan. Langile talde honen arabera, 2020ko otsailean izan zuten lehen talka familiekin (Aldundiak bisitak debekatu zituztenez), eta zendutakoak agurtu ezin izatea akabera izan zen. Jakitun dira senideen egoera oso gogorra izan zela, baina haien hitzekin erasotuak sentitzen dira: “Familien arabera, egoiliarrrak deshidratatuta eta ondo elikatu gabe zeuden, eta hori esaterakoan gure profesionaltasuna zalantzan jartzen ari dira”.

Horren harira, argitaratutako testuaren helburua era bada azaltzea ez daudela ados familiekin ostegunero egiten dituzten elkarretaratzekin. “Senideek beti diote langileen babesa dutela, baina ez da egia. Langile ba-

tzen babesa izango dute, baina ez guztiona”, argitu dute.

Halaber, ahotan hartu dituzte Eusko Jaurlaritzaren (ratioei dagokien legea aldatu zuelako 2019an), eta Osakidetza erabakiak: bajak arinkeriaz emateagatik eta ambulanziaz ez bidaltzeagatik, baina hori egoitza guztietan gertatu zela azaldu dute, “ezinezkoa zelako eskaera guztiei erantzutea”.

Egoerak sortutako nahasmen honek eragina izan du langileen artean ere, non desadostasunak sortu diren: “Beste aldean dauden langile askok ez dute pandemian lanik egin, baja hartu zutelako, eta ez dute ikusi nola egin genuen lana, horregatik da hain mingarria —amorratu dira—. Dena den, polemika atzean utzi nahi dugu behingoz, inor ahaztu barik, eta puntu komunak bilatu aurrera begiratu ahal izateko”.

Dorleta Vidal

Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

Drogeteniturrri, 299 zk.

**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**



Nekane Olalde, Abeletxe Egoitzako langilea:

## “Gure borrokaren helburua da egoitzen kudeaketa-eredua aldatzea”

Abeletxeko langile talde batek kaleratutako idatziari erantzuteko, beste testu bat zabaldu zuten hurrengo egunean egoitzako behargin ezberdinek: “Gezurrek oso hanka motzak dituzte”. Dokumentu hau sinatu zutenen artean dago Nekane Olalde, egoitzako langilea, LABeko ordezkaria eta senidea.

**- Zenbat langilek osatzen duzue talde hau?**

Ez dakit kopuru zehatza ematen. Beste idatzia sinatu zutenen erdia, orain ados dago gurekin.

**- Zergatik erabaki zenuten idatzi bat kaleratzea?**

Beste langile taldeak zabalduzako panfletoari aurre egiteko. Ez genuen liskarrik nahi, baina irainduta sentitu ginen.

**- Zer dela-eta?**

Hasteko, Abeletxeko langileen izenean sinatu zutelako, eta guztiok ez gaudete testu horrekin ados. Bestalde, ez dakigulako senideen kontra dauden, langileen kontra, edota testua enpresak berak idatzi duen. Beste hamaika kontu aipatu ahal izango genituzke.

**- Zein da senideekiko zuen jarrera, hain zuzen ere?**

Haien aldarrikapenekin ados gaude, eta babesa ematen diegu. Martxotik maiatzera bitartean gertatutako argitze-ko eskatzeaz gain, langile gehiago eskatzen dituzte, egoiliarrak hobeto tratatu ahal izateko. Era berean, Aldundiari, Eusko Jaurleari, Espainiako gobernuari edo dagokionari eskatzen diote egoitzen kudeaketa-eredua aldatzea. Gure ustez aldaketa hori ezinbestekoa da. Ez gaude langileen kontra, alde baikik: gure lan baldintzak hobetu nahi ditugu, egoiliarrei behar duten zaintza eta denbora eskaini ahal izateko.

**- Nola baloratzen duzue zuzendaritzaren lana pandemiaren hasieran?**

Penagarria. Zuzendaria bajaran egon zen, baina zuzendariordea bere bulego-

an sartu zen, eta ez zen ezertarako irten. Mantentze-lanetarako langileak hartu zuen egoitzaren gidaritzza. Kaosa izan zen. Zorionez, Bilboko egoitza bateko zuzendari bat eta 3 gobernari etorri ziren, eta haiek bideratu zuten egoera. Pasilloetan gora eta behera ibili ziren, aginduak ematen eta erabakiak hartzen. Gure zuzendaritzak, gaur egun ere, bulegoan sartuta jarraitzen du.

**- Hasieratik babes ekipok izan zenuzuten?**

Badakigu pandemia bat-batean heldu zela, eta inork ez zekiela nola jokatu, baina apirilaren 5ean ez geneukan babes-ekiporik. Enpresak egindako oihalezko maskarekin egiten genuen lana. Jarduna bukatzerakoan, garbitzera bota, eta hurrengo egunean beste edozein langile edo egoiliarrena erabili behar genuen. Bestalde, lehen asteetan zakar poltsekin egin genuen lana, ez geneukalako batarik.

**- Zer leporatzen diozue babes falta hori: egoerari berari edo haiek lortzeko interes faltari?**

Zekenkeriari. 2019an lan-hitzarmena borrokatzen egon ginenean, Aldundiak ratioak aldatu zituen, eta kanpoko enpresak arinka etorri ziren. Atera kontuak: Euskadin, egoitzako plaza bategatik 3.200 € ordaintzen dira hilero; Espainian, aldiz, 1.700 € inguru. Euskadiko egoitzak negozio hutsa dira! Egoiliar bakoitzarengatik dirutza kobratzeaz gain, enpresa hauek gastuak minimora murrizten dituzte. 2019ko abenduan Vitalia Home enpresak egoitzaren kudea-



keta hartu zuenetik, esparru guztietan daude gabeziak, pandemia aurretik zein ostein, gauzarik oinarrikoenetan (toallak, toallitak, kolutorioa, depresoreak...). Langileei dagokienez, gaur egun erizain bakarra dago 87 egoiliar artatzeko; 2019an, aldiz, 7 erizain zeuden. Garbitegian eta sukaldean gauza bera.

**- Zeintzuk dira aipatu dituzun ratio horiek?**

Nire kasuan, mendekotasun handia duten 18 egoiliar artatu nituen 2020an egunero: bi pertsonen artean, eta bi ordu zetorren pertsona baten laguntzarekin. Eta gaur egun, bigarren solairuan esaterako, arazo mentalak dituzten 27 egoiliar daude, eta bi langile bakarrik. Zenbat denbora eskaini diezaiokegu nagusi bakoitzari? Zainketa duina egiten ari gara? Ratio horiek aldatu nahi ditugu, hor dago gure borroka.

**- Azkenaldian kontraturik egin da Abeletxen?**

Bai, azken asteetan 7 kontratu egin dira, jardunaren %33ra. Ze kontratu mota da hori? Ze soldata jasoko dute langile horiek hilean? Enpresak ez ditu langileak zaintzen, prekarietatea bultzatzen du. Onartezina da.

Dorleta Vidal

# Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak  
- Ostalaritzarako muntaiak  
- Pertsianak  
- Instalakuntzak eta konponketak  
- Motorizazioa

- Manparak  
- Segurtasun pertsianak  
- Pertsiana dekoratiboak  
- Estoreak  
- Eltxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

# Errua

**A**ma izan nintzenean ez nekien zer zetorkidan. Benetan diot, "ama on" izateko eskakizunak zenbatezina iruditu zaizkit, harritzen nau halako errazkeriaz jasotako lezio andanak. Hogeita bost urterekin erditu arren, ez dut uste amatasuna denik emakumeon zoriontasun eta errealizazio pertsonalerako bide bakarra, baina maila indibidualean diskurtso biak bateragarri egitea ez da lan erraza, eta uste dut joera handia dagoela amak gutxiesteko egoeren errudun izendatuz.

Zeren funtsean berdin du txupetea eman diogun ala ez, gurekin ohe berean lo egiten duen ala ez, porteatzen dugun ala ez, es-

zedentzia hartzen dugun ala ez: janari solidoak osoan ematea erabaki eta gaur pure bat eman badiozu errudun sentitzen zara. Badijadi erabakiek zurrunka izan behar dutela, eta beti dago baten bat marra gorria gurutzatu duzula esateko zain.

Nuen susmoa konfirmatu dut: ardura eta errua amarenak dira beti. Iradokizunak asmo txarrik gabe iristen dira haurdunaldiko jarreragatik, erditzean gertatu eta hautatuagatik, eman nahi eta ematen den heziketagatik. Zoritxarrez emakumeok errudun sentitzen gara egunero mila gauzogatik eta ume bat iristean amildegi galanta sor daiteke. Erruak noraeza eta inkonsistentzia baita-



*Garazi Mugarza*

kartza, baina kontrolaezinak diren gauzak zuzendu, aurreikusi eta, gainera, zeure burua seguru antzetzeko eskatzen zaizu, azken finean besteen aurrean bizimodu txukuna justifikatzeko. Horrelako gauzak gertatzen dira halako egoera zurgarri eta ezegonkor batek estetika bat egin nahi denean.

Bestelakoa litzateke ulertuko bagenu bakoitzak eskura dauzkan aukerekin onena eskaini nahian dabilela eginbide konplikatu honetan, eta ziurrenik ez dela ezer gertatzen ez bazaigu beste modurik bururatu, ia dena da barkagarri. Bizitzak berak argi-ilunak ditu. Eta nork bereak ditu, bai argiak eta bai ilunak.

“ ... uste dut joera handia dagoela amak gutxiesteko egoeren errudun izendatuz ”

Komunitateak

## San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com  
Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Zuri egokitzen den odontologia

La odontología que se adapta a tí

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI Cof. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04  
info@clincicasanpelayo.com  
San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)

## ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

## Lorenzotxoren erronka

Gure eskolako pertsonaia aurkezten dizuegu: Lorenzotxo. Besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilpena bultzatzea da bere helburuetariko bat. Horregatik, eskolan egiten ditugun jai edo ospakizunetan sarritan azaltzen da, eta mezu edo erronkaren bat luzatzen digu.

Oraingoan, gela bakoitzari, mezu bana bidali digu hutsik dagoen ontzi baten barruan. Bere esanetan, mezu hori irakurtzea lortzen badugu, sari edo opari bat egongo da. Kontua da, hori lortzeko, ontzia egunero urez betetzen joan behar garela, eta hori egin ahal izateko euskaraz hitz egitea beharrezkoa da. Zenbat eta euskaraz gehiago hitz egin, orduan eta arinago beteko digu ontzia.

Ai ene, hau zirrara, zein izango ote da mezua edota saria?



## Baratzea berriro martxan

Udaberria hasi da eta honekin batera gure baratzea berriro martxan dago. Oraingo honetan 1. eta 2. mailako en lehenengo lana izan da baratzea garbitzea: jardinerak txukundu, belarrak kendu eta lurra atundu.

Ortua prest izan dugunean, barazkiak eta fruituak landatzen hasi gara: letxugak, marrubiak eta tomateak. Horretarako pauso hauek jarraitu ditugu: Lehenengo lurlean zuloak



egin, jarraian haziak edota landareak sartu, ondoren ongarria bota eta azkenik ureztatu.

A ze nolako go-goa dugun gure barazkiak hazten ikusteko!

## Gurasoak ipuinak kontatzen

Liburuaren Eguna ospatzeko hainbat ekintza burutu ditugu. Urtero, gurasoak

eskolara etortzen ziren ipuinak kontatzera, baina aurten COVID-19a dela-eta gelara sartu ezin direnez, bideoan grabatzea eta irakasleari bidaltzea proposatu diegu. Arrakasta handia izan du proposamenak eta, hainbat kontaketa jaso ondoren, umeez pila bat gozatu dute ikusten eta entzuten.

Honetaz gain, liburutegian, ikasleek ekarritako ipuinekin erakusketa bat burutu dugu, baita gelako kontaketa egin eta beste taldeekin era digitalean partekatu, edota gustuko ipuinak ekarri eta zergatik gustatu zaigun azaldu.

Informazio gehiago gure eskolako blogean aurkituko duzue: <https://sanlorenzoeskola.blogspot.com/>



## 4. mailakoak Ermuan zehar

Eskolako ikasleek Udalak antolatutako "Ermua ezagutzen" hirigintza-tailerrean parte hartu, eta gure herriaren historia eta xehetasunak ezagutzeko aukera izan dute. Gelan egindako lehen saioan, mapen eta argazkien bidez herria nola hasten eta zabaltzen joan den aztertu dute.

Bigarren saioan, ginkana jolasa burutuz, Ermutik ibilbidea osatu dute, herriko eraikuntza edota eskultura adierazgarrienak bisitatu: udaltxea, eliza, liburutegia, Lobiano...

Pila bat ikasi eta primeran pasatu dute!



Entzumenaren doako azterketak  
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



KRABI

Ileapaindegia  
Estetika



Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



URRETA burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolajea
- \* Ervailak
- \* Giltzak
- \* Sarrailagintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**MALLABIA  
1987**

Argazki honetan agertzen diren lagunek mendi buelta bat egitea erabaki zuten urtarrilaren 1ean, urte berria hasteko. Argazkia 1987 eta 1990 urteen inguruan aterata dago, Udalaizen tontorrean. Bertan ageri dira egun horretan mendira joan ziren batzuk: Asier Garitagoitia, Ramon Antxia, Valentin Mugarza eta Jose Mari Antxia.

**ERMUA  
1971**

Batzokiaren terrazan aterata dago argazkia. Mutikoen ostean, ezkerrean Lomiñoneko etxe zaharra eta eskuman, trenbidea pasatzeaz batera, Ariñonekoa. Hamaikakoa osatzen: tente ezkerretik eskumara Pepe Villar, Gaizka Areitioaurtena, Iñigo Izagirre, Mikel Yarza, Teodoro Zubizarreta eta José Luis Zubizarreta; makurtuta ---- Luengo, Fernando Orbe, Javi Onandia, Jaime Izagirre eta Juan Ramón Areitioaurtena. Baloia ekartzen zuenak jokatzeko eskubidea zuen, nahiz eta erdipurdiko jokalaria izan; orduan egunean bi lagunek izan zuten ohore hori.

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
www.artrosermua.com

**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

## LAN BILA

Ermuko neska gazte euskalduna eskaintzen da arratsaldean umeak zaintzeko. 14:30etik aurrera. Oporretan egun osoz.  
© 648 62 52 09

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.  
© 681 31 09 89.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.  
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.  
© 632 41 53 74.



Apirilaren 18an  
Zorionak Luken!!  
Ondo pasa zure egunean eta jaso ezazu patxo haundi bat zure familian patetz.



Apirilaren 25ean  
Zorionak Naia polita zure 6. urtebetetzean! Egun berezia izatea espero dugu! Aita eta amaren partez, asko maite zaitugu!



Maiatzaren 1ean  
Zorionak Eder maitea zure 8. urtebetetzean. Familia osoaren partez, egun ederra pasatu. Asko maite zaitugu!



Maiatzaren 1ean  
Zorionak Ane!! 6 urteko printzesa!! Jarraitu holako saltsa ta alai izaten. Muxu asko danon partez.



Apirilaren 1ean  
Zorionak Maritxu!!  
11 urte munduan eta 11 urte gu pozten. Muxu handi bat ama, Andoni eta Pabloren partez. Asko maite zaitugu.



Maiatzaren 19an  
Zorionak Irati etxeko guztion partez. Muxu asko zuretzako, asko maite zaitugu.



Maiatzaren 6an (Naiat eta Ekhi), eta maiatzaren 10ean (Xuban)  
Zorionak hirukote, patxo erraldoia familia osoaren partez.



Apirilaren 11n (Libe), eta apirilaren 19an (Diana)  
Zorionak Libe!!! Bi urte bete dituzula. Zorionak Diana!!! Muxu erraldoi bat Lucía eta aitaxoren partez. Asko maite zaituztegu, txipirona eta amatxo pista-txo!!!



Maiatzaren 4an (Nora), eta maiatzaren 22an (Lander)  
Zorionak Nora eta Lander, musu handi bat aitite-amamaren, ama-aitaren eta Lierren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua helbide honetara:

[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Azken eguna: **Maiatzaren 19.**

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK  
IRAKASKUNTZA  
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea  
943 17 90 37  
[enter@informaticaenter.com](mailto:enter@informaticaenter.com)

**arral**  
carra97.com

Luis Cañas Amaren  
Cair  
Ehun  
Txakoli Astobiza  
Pazo Señorans  
Cava Oriol Rossell

Grupo Yllera  
Casar de Burbia  
Bodegas Valdemar  
García de Olano  
Manzanos Wines  
Pernod Ricard Wines  
Faustino García Martínez.

FAMILIA  
**LUIS CAÑAS**  
BODEGAS Y VINEÑOS

T.943176075

[arral@arra97.com](mailto:arral@arra97.com) | Pol. Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Hamburguesería  
**TITANIC**

Pintxo dastaketa  
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / [niklinika@gmail.com](mailto:niklinika@gmail.com)

**ZINEA**

- 1etik 4ra:**  
"Cuñados"  
+ "I care a lot"
- 8tik 11ra:**  
"Una joven prometedora"  
+ "Una veterinaria en La Borgoña"
- 15etik 18ra:**  
"Crónica de una tormenta" +  
"Mamma María"
- 22etik 25era:**  
"El olvido que seremos"  
+ "La nube"
- 29tik 1era:**  
"Aquellos que desean mi muerte"  
+ "The last bus"  
Ermua Antzokian.  
19:00etan.

**ZINE-KLUBA**

- Hilak 6:**  
Laburbira  
(film laburren emanaldia)
- Hilak 13:**  
"Crock of gold"
- Hilak 20:**  
"Wildland"
- Hilak 27:**  
"Otra ronda"  
Ermua Antzokian.  
19:00etan.

**UMEENTZAKO ZINEA**

- Hilak 2:**  
"Bobby el erizo"
- Hilak 9:**  
"¡Upsss 2! ¿Y ahora dónde está Noé?"
- Hilak 16:**  
"Kapitaina Sablehortz"
- Hilak 23:**  
"Earwig y la bruja"
- Hilak 30:**  
"Solan y Eri:  
Misión a la luna"  
Ermua Antzokian.  
17:00etan.

**ANTZERKIA**

- Hilak 7:**  
"Los olivos pálidos",  
La Red Teatroaren eskutik.  
19:00etan.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 10 €
- Hilak 14:**  
"Ez dok ero",  
Tartean taldearen eskutik.  
19:00etan.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 10 €

**Zozketa!**

**Ez dok ero antzerkirako sarrerak nahi dituzu?**

Maiatzaren 14an, 19:00etan, *Ez dok ero* antzezlan eskainiko da Ermua Antzokian, eta Tartean Teatroari esker, sarrera bikoitza zozketako du *Drogeteniturrik*.

Parte hartzeko, galdera honi erantzun behar zaio: **Nola deitzen dira antzezan honetako bi aktoreak?** Erantzuna [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera bidali beharko da, eta asmatzen duten guztien artean sarrera bikoitza zozketatuko da .



**MUSIKA**

- Hilak 21:**  
Liher (Vértigo Rock).  
19:00etan.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera. 8 €
- Hilak 22:**  
Vértigo Rock:  
Alfredo & Iker Piedrafita,  
Jon Moma,  
Bala y Rodeo.  
12:00etatik aurrera.  
Orbe kardinalaren plazan.
- Hilak 28:**  
"Monochrome AV",  
Oscar Mulero Dja  
(Elektrojaia).  
19:00etan.  
Ermua Antzokian.  
Sarrera: 15 €

**Hilak 29:**

Abesbatza kontzertua:  
Eresmin abesbatza  
(Lesboseko errefuxiatuen aldeko emanaldia).  
20:00etan.  
Santiago elizan.

**ERAKUSKETA**

**Hilaren 3tik 16ra:**  
Argazki erakusketa:  
"Txirringularitzarekiko pasioa".  
Oscar Blancoren lanak.  
Lobiano Kulturgunean.  
18:00etatik 20:00etara.

Patxi López

**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO  
arraindegia**

**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)

**ALBOKA**

**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Tzikitrixia
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)



ORAINGOAN....  
PLATER BERRIAK!  
- Bakailaua pil-pil erara  
- Kokotxak  
- Barrazkiloak  
- Galiziar txuletak

EGUNERO SUKALDEA ZABALIK  
9:00-20:00



ERRESERBAK|610222468

*Mañeko*  
Etxeko Janariak  
Viandas Selectas

# AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta  
ikas dezazun nahi du.



Janire Urrestarazu Aizpurua, AEK-ko irakaslea.



## Ermuko Kaltxango AEK IKASTARO TRINKOAK

**EKAINA | UZTAILA | IRAILA**

Ekainaren 24tik uztailaren 21era (80 ordu)

Irailaren 2tik 29ra (80 ordu)

Irailaren 15etik 28ra (30 ordu)

Ikasturtean zehar ibilitako ikasleentzat

**Izena emateko azken eguna: ekainaren 15a**

4 orduko ikastaroak  
Goizez zein arratsaldez  
Diruz lagunduak

Covid-19a dela eta, ikasle kopuru mugatua; eman izena lehenbailehen

Zearkale 16,  
943 17 19 40 · 688 746 480 · [kaltxango@aek.eus](mailto:kaltxango@aek.eus)